Jesucristo gore Jeinaren evangelio saintiua seguin San Mateoc. I. Capitulua.

1. Jesucristoren genealogia, Daviden seme, Abraanen seme. 2. Abraanec engendratu cion Isaaqui. Isaaquec engendratu
cion Jacobi. Jacobec engendratu cion Judasi, eta bere anasser. 3. Judasec engendratu cion Tamaren ganic Faresi,
eta Zarari. Faresec engendratu cion Esroni. Esronec engendratu cion Arami. 4. Aramec engendratu cion Ami-
nadabi. Aminadabec engendratu cion Naasoni. Naasonec engendratu cion Salmoni. 5. Salmonec engendratu cion
Raaben ganic Booci. Boocec engendratu cion Ruten ganic Obedi. Obedec engendratu cion Jeseri. Jesec engen-
dratu cion erregue Davidi. 6. David erreguec engendratu cion Salomoni Uriasen emazte izan cena ganic. 7.
Salomonec engendratu cion Roboami. Roboamec engendratu cion Abiasi. Abiasec engendratu cion Asari. 8. Asac
engendratu cion Josafati. Josafatec engendratu cion Jorami. Joramec engendratu cion Oziasi. 9. Oziasec
engendratu cion Joatami. Joatamec engendratu cion Acaci. Acacec engendratu cion Ezequiasi. 10. Eze-
quiasec engendratu cion Manasesi. Manasesec engendratu cion Amoni. Amonec engendratu cion Josiasi. 11. Jo-
siasec engendratu cion Jeconiasi, eta bere anasser judiuac Babiloniara eraman izan zren temprari avancha.
12. Eta Babiloniara eraman izan zren gueroztic: Jeconiasec engendratu cion Salatieli. Salatielec engendratu cion

Zorobabeli. 13. Zorobabelec engendratu cion Abiudi. Abiudec engendratu cion Eliacimi. Eliacimec engendratu cion
Azori. 14. Azorec engendratu cion Sadoqui. Sadoquec engendratu cion Aquimi. Aquimec engendratu cion Eliudi.
15. Eliudec engendratu cion Eleazari. Eleazarec engendratu cion Matani. Matanec engendratu cion Jacobi.
16. Eta Jacobec engendratu cion Joseri, Mariaren esposua, nortaric (Mariaren ganic) sortu cen Jesus, sobre=
icenez Cristo. 17. Cola dra amalaur generacione guciuac Abraanen danic Daviden daino: eta Davidenac judiuac
Babiloniara eraman izan zren bitartio, amalaur generacione: baitare amalaur dra generacioniac Ba=
bilionara eraman izanic gueroz Cristo bitartio. 18. Baya Cristoren sortiua izan cen guisa contan: Cego=
laric bordaltruc Maria bere ama Josereguin, erden cen concebitu ciola bere entrañetan Espiritu Saintiuaren obraz, lein ssunto egon=
baguetaric. 19. Baya Jose bere senarra, izaitian, cena guisa, justo, eta nai ezaularic infamatu, pensatu cion
eiztia issilqui. 20. Ura pensamentu contan zagolaric, nonta Geinaren ainguru bat aparecitu citzaun a=
metstan, erraiten: Jose Daviden semia, etzazu errecetoric ecun recibitaco zore etsen Maria zore e=
maztia: ceren izan dena engendratruc bere entrañetan, tzu Espiritu Saintiuaren obra. 21. Eta cola erdi=
ren dizu seme bat zoini izaren baitzu icenez Jesus: bada ura tzu salvatu biar diona edo libratu bere iria

bere becatuetaric. 22. Zoin gucia eguin cen cumplitruc izan ledin Jeinac antcinetic erran ciona Profetaren medioz, zoinec erraiten baitu: 23. Ssaquin zacei vergin batec concebiten eta erdiren diola seme bat: zoini izaren dabei icenez Emanuel, zoinec vueltatruc nai du errans Jangueicua goregui. 24. Conequin Josec, iratzartiari, eguin cion Jeinaren ainguriuac manatu zauna, eta errecibitu cion bere emaztia. 25. Eta izaguntu edo tocatu bague emon cion arguiara bere seme primogenitiua: eta izari zaun Jesusen icena.

## II. Capitulua.

1. Sortruc bada izan baicoz Jesus Judeaco Belenen reinatan ciolaric Erodesec, nonta Mago banac ssin zren iguzqui erguinguetic Jerusalenera, 2. Galteguiten: ¿Non dago judiuen erreguia acabatu dena sortiaz? ceren guc icusi baitigu bere izarra, eta ssin guitra ari adoratia gatic. 3. Caur entzun cionian erregue Erodesec, turbatu cen, eta arequin Jerusalen gucina. 4. Eta ssuntatan ciolaric sacerdotien principa= le guciuac, eta irico Escribañac, galteguiten zabein non biar cion sortu Cristo edo Mesiasa. 5. Zoini ec errespondidu cein: Judaco Belenen: ceren cola escribitu baicion Profetac: 6. Eta zu

Belen Judaco lurra, ezra Judaco ciudade principalen artian ciertoqui menosena: cerengatic zutaric
tzu nontic erquin biar baitu caudillo gobernatu biar diona Israeleco ene iria. 7. Gunian Erodesec dei=
tan ztiolaric lagunguaric bague Maguac ssaquin cion cuidamentiirequi beretaric tempra zoin=
tan izarra aparecitu citzabein: 8. Eta encaminatan ztiolaric Belenera, erran zabein: Jan, eta informa
ztei puntualqui aguitan denaz aur conen gainian: eta erdenez gueroz, aviso emonaztaceid, ni ere jan
nein eta adora tzadadan. 9. Caur entzun baicoz erreguiari, partitu zren: eta nonta izar ecusi ceina
iguzquiaren erquinguinan, faiten cen beren antcinian, baratu cen artio eltiari aurra cegon leguina=
ren aurguiara. 10. Izarraren ecustiari anichqui regocijatu zren. 11. Eta etsian sartian, erden cein aur=
ra Maria bere amarequin, eta postratan zrelaric adoratu zabein, eta iriguiric bere cofriac, ofrecitu
zabein urre, incensu eta mirrazco presentiac. 12. Eta errecibitu baicoz lotan aviso bat ceuritic ez
leditein vuelta Erodesen gana, vueltatu zren bere erriara berce vide bataric. 13. Urac partituz gueroz,
Jeinaren ainguru bat aparecitu citzaun ametstan Joseri erraiten zaularic: Ssagui zte, ar zazu
aurra, eta bere ama, eta ĩes Egiptora, eta egon zte can nic avisa ztudan artio. Ceren Erodesec cher

caten baitu aurra ilarazteco. 14. Ssaguitan celaric Jose, artu cion aurra eta bere ama gayaz: eta
erretiratu cen Egiptora, 15. Non egon baicen Erodes il cen bitartio: zointaz guisaz cumplitu cen Gei=
nac erran ciona Profetaren mintzoz: Nic deitu nion Egiptotic ene semia. 16. Bitartio Erodes
ecustan celaric burlatruc Magiüen ganic, irritatu cen sobranio, eta ordenu emon cion iltaco Belenen,
eta unguru guciuan aur. zauden guciuac, bi urtetaric apal, segun tempra ssaguin ciona Ma=
güen ganic zointan aparecitu citzabein izarra. 17. Gunian ecusi cen cumplitruc erran ciona antci=
netic profeta Jeremiasec erranez: 18. Ramaradraino ere entzun zren mintzuac, anich nessar eta
irago: Da Raquel nessar equiten baitu bere semen gatic, nai izan bague consolatruc, ceren ez
baidra vici. 19. Erodesen muertia aguituz bertan, Geinaren ainguru bat aparecitu cen lotan Jose=
ri Egipton, 20. Erraiten zaularic: Ssagui zte, eta ar zazu aurra, eta bere ama, eta fan zte Israeleco
lurriara: ceren il baitra ssa maquinatan ceinac aurraren viciaren contra. 21. Ssaguitian, Jo=
sec artu cion aurra, eta bere ama, eta ssin cen Israeleco lurriara. 22. Baya entzutian Arquelaoc
manatan ciola Judean bere aita Erodesen lequiuan, lotsatu cen cara faitra: eta avisatruc ametstan,

erretiratu cen Galileaco lurriara. 23. Eta ssin cen vici izaitra ciudade batian deitan baicen Nazaret:
cumplitan celaric guisa contan: Ecunen du icena Nazareno.

## III. Capitulua.

1. Tempra cartan Juan Bautista eitci cen ecustra predicatan Judeaco desiertuan, 2. Eta erraiten: Eguin zacei
penitencia: ceren abaño baitago ceurietaco reinua. 3. Caur da zointaz erran baicen profeta Isaiasen
medioz: Da desiertuan clamatan dionaren mintzua, erraiten: Prepara zacei Jeinaren vidia: eguin
dizacei ssussen bere sendac. 4. Eragutan cion Juanec veztido bat camellozco biloz, eta larruzco cor-
rea bat cinturara: eta bere bazcaria cen ssaisticulare eta mendico ezti. 5. Zuatzan bada aren erdeitra
guentiac Jerusalen, eta Judea guzutic, eta Jordaneco erribra guzutic, 6. Eta errecibitan cein a-
ren ganic batissua Jordanian, confesatan zteilaric beren becatiuac. 7. Baya nola ecustan baicion
ssiten aren batissuara fariseo, eta saduceuetaric anich, erran zabein: ¡ O' viborazco casta! ¿ norc
eracutsi daicei ez baicic aparienciequin ezcapa zaiztequeila amenazatan daicein iratic? 8. Eguin
zacei bada penitenciazco frutu dinoac. 9. Eta eiztei erratiaz ssen baitan: Abraan aitataco dacagu; ceren

nic erraiten daiceid poderoso dela Jangueicua equiteco arri cuec beretaric sor tian Abraani seme. 10. Beira
zacei asscora izariric dagola ssa arbolien izorruara. Eta arbole oro eragutan eztion frutu on, izanen da
ebaquiric, eta suara egochiric. 11. Nic equiaz batissatan daiceid urequin mosiaraztaco penitenciara, baya
ene atcian ssin biar diona, da ni bino poderosoago, eta ni eztare dino ez naz ari eramateco sandaliac:
ura da batissatu biar daiceina Espiritu Saintuan, eta suan. 12. Arc daca bere esquiuetan sardia: eta
ssainten du ecin obequi bere llarnia: eta bere garia sarten du graneruan, baya autzac erreren tu
il ez deitequen su batian. 13. Tempra cuetan ssin cen Jesus Galileatic Jordaniara Juanen cherca
aren ganic batissatruc izaiteco. 14. Baya Juan errestitan cen cartra, erraiten ciolaric: ¿Nic
biar diez izan batissatruc zore ganic, eta zu ssitan zra ene gana? 15. Zoini errespondituu cion
Jesusec, erraiten: Eitz nazazu equitra orai, ceren cola conveni baita guc cumpli tzagun jus=
ticia gucitua. Gunian Juanec condescenditu cion arequin. 16. Batissatu baicoz bada Jesus, uretic
erquin cen istantian, ceuriac irigui citzazcan, eta ecusi cion ssaisten Jangueicuaren Espiritua ur=
ssuaren figuran, eta erreposatan aren gainian. 17. Eta senditu cen ceuritic mintzo bat erraiten:

Caur da ene Seme maitia, zointan baitacad ene complacimentu gucina.

## IV. Capitulua.

1. Ocasione cartan Jesus izan cen eramanic Jangueicuaren Espiritiuaren ganic dezertuara can izan ledin tentatruc diabiuaren ganic. 2. Eta berroguei egun berroguei gayequin barurtuz gueroz, ecun cion gose. 3. Gunian abañatan celaric tentazalia erran zaun: Jangueicuaren Seme bazra, erran zazu ari coric vuelta tiala oguitan. 4. Baya Jesusec errespondituzaun: Escribitruc dioc: Ez solo oguiz vici da guizona, beicic ele edo disposicione Jangueicuaren autic erguitan den orez. 5. Contaz gueroz diabiuac eraman citzaun Jerusaleneco ciudade saintiuara, eta isari cit zaun templuaren goyenian, 6. Eta erran zaun: Jangueicuaren Semia bazra, egoss zte guementic apal. Bada escribitruc diozu: Encomendatu daizula bere ainguriuer, ceinec arten daicei bere esquiuetaco palmetan, zore zancua eztein tropeza arri zomaiten contra. 7. Jesusec replicatu zaun: Baitare escribitruc dioc: Etzu tentaten zore Jangueico Geinari. 8. Orainore igan citzaun diabiuac mendi gora batra: eta mostratu zaun mundiuaren reino guciuac, eta beren andigua, 9.

Eta erran zaun: Gaiza cuec gucinac emonen daizud, postratan zrelaric ene antcinian adoratan=
bainuzu. 10. Errespondit u zaun gunian Jesusec: Apartadi cortic Satanas: Ceren baitago escribitruc:
Adoraten tzu zore Janguèico Geina, eta ari solo cervuchaten tzu. 11. Correquin eitzu citzaun dia=
biuac, eta nonta abañatu zren aingurinac, eta cervuchatan zabein. 12. Entzutian guero Jesusec
Juan encarcelatruc izan cela, erretiratu cen Galileara: 13. Eta eitztan ciolaric Nazareneco
ciudadia, fan cen egoitiaz Cafarnaunera, ichasoco ciudade, Zabulonen eta Neftaliren mugante:
14. Cola eltu cen cumplitra Isaiasec erran ciona: 15. Zabulonen erria, eta Neftaliren erria, non=
tic faiten baita Tiberiadeseco ichasuara Jordanen berce altiara, Gentilen Galilea, 16. Ulun=
guan erori ric zagon iri conec, ecusi du argui andi bat: argui ssin dena arguitra zaudener mue=
tiaren itzaletaco errian. 17. Guniaz queroz asi cen Jesus predicatan, eta erraiten: Eguin zaci
penitencia: ceren abaño baitago ceurien reinua. 18. Erabiltan celaric egun batez Jesus
Galileaco ichasuaren erribran, ecusi cion bi anasse, Simon, guero deitu cena Pedro, eta Andres
bere anassa, egoisstan erredia ichason, (zren bada arrantzari) 19. Eta erran citzabein: Ssarrequi ztei niri,

eta nic equinen diez el ztein izaitra guizonen arrantzari. 20. Istantian biac eitciric errediac, ssar=
requitu citzazcan. 21. Igartan celaric antcinarago, ecusi cion berce bi anasse, Santiago Zebedeoren seme
eta Juan bere anassa bere erredien compoisitan barcan bere aita Zebedeorequin: eta deitu ztion. 22
Urac guisa berian eitciric errediac eta beren aita, ssarrequitu citzazcan. 23. Eta faiten cen Jesus
vuelta emoiten Galilea guzutic, eracustan beren sinagoguetan, eta predicatan evangelioa edo ceu=
rico reinuaren berri ona: eta sontotan zoin naiden dolencia eta erigua iricuer. 24. Corre=
quin laster equin cion aren famac Siria guzutic, eta presentatan zabein eriguarequin zau=
den gucioac, eta quessu zrenac gach difrente eta dolore viciz, endemoniatioac, lunaticoac,
perleticatioac, eta sontotan ztion: 25. Eta sequitan citzazcan guente multitud andi bat
Galilea, eta Decapolico, eta Jerusalen, eta Judeaco, eta Jordanen berce alteco.

## V. Capitulua.

1. Baya ecustian Jesusec guente multitud caur gucioa, igan cen mendi batra, non ssaseriric, abañatu cit=
zazcan bere disciputuac, 2. Eta iriquitan bere ao divinua, adotrinatan ztion erraiten: 3. Bienaventura=
u

espirituzco pobriac: ceren entaco baita ceurico reinua. 4. Bienaventuratu dulciac eta umildiac: ceren
ec gozaten baitei lurra. 5. Bienaventuratu nessar eguiten deinec: ceren ec consolatruc izanen baitra.
6. Bienaventuratu gose eta egarri deinec justiciaz: ceren ec izanen baitra aseric. 7. Bienaven=
turatu misericordiosuac: ceren ec alcanzaten baitei misericordia. 8. Bienaventuratu biotza
argui deinec: ceren ec Jangueicua ecusen baitei. 9. Bienaventuratu baquia procuratan deinec:
ceren ec izanen baitra deitruc Janguicuaren seme. 10. Bienaventuratu persecucione su=
fritan deinec justiciaren gatic: ceren entaco baita ceurien reinua. 11. Dichoso izanen zrei gu=
zonec ene causaz maledica zaicintceinian, eta persegui zaicintceinian, eta erran dazaceinian
quezurrequin
gassqui guisa guzuz ssen contra. 12. Alegra ztei gunian eta erregocija ztei, ceren baita anich andi
ceurian esperatan daicein recompensa: guisa berian persequitu citzabein profeta ssen ant=
cinetic izan zreiner. 13. Ssec zrei lurreco gatza. Eta gatza eguiten bada gueza, ¿ cerequin vue=
laten citzaud saboria? deustaco cervuchatan ez du, baicic arrojatruc izaiteco eta guente=
zanco petan erabiltaco. 14. Ssec zrei mundiuaren arguia. Ez deitegue alcha ciudade bat

edificatruc mendi batén gainian: 15. Issiqui ere ez deitegue arguia izartaco almute batén pean, baicic
candelero batén gainian, argui tzan etseco guciuer. 16. Cola reluci tzala ssen arguiac guizonen antcinian,
ecus doquein guisa ssen obra onac, eta glorifica tcein ssen aita ceurietan dagona. 17. Etzacei pensa
ni ssin nazala leguiaren dotrina desequitra, ez profetena ere: ez naz ssin aren destruitra, baicic
bere cumplimentiuaren emoitra: 18. Ceren eguia guciuarequin erraiten daiceid, faltatén dela
ceuria eta lurra, lein ecic bara dein cumplitu baque perfectoqui leguian contenitan den guciua,
aiqueta jota bat cain bacoch edo aren puntu bat ere. 19. Eta cola norbaitec auts baleza mandamentu
cuetaric bat chiquerrago urdu izanic ere, eta eracuts baleza guizoner equitra gaiza bera, izanen da
ecunic chiquerrena, edo ezdeustaco, ceurien reinuan; bada guardatan eta eracustan tionac, cori iza=
nen da ecunic anditaco ceurien reinuan. 20. Ceren nic erraiten daiceid, ez bada ssen justicia Escriba=
ñena eta fariseuena beino osougo eta cumplitrucago, ezrei sarten ceurien reinuan. 21. Entzunic
zaudei erran cela ssen mayorer: Etzu ilen: eta ilezanac, izanen dela condenatruc ilic izaitra jui=
ciuan. 22. Nic erraiten daiceid obro: nornaidenec ar tzan ojadiza bere anassari, meressitén du

juezac condena dazan. Eta dei lazanac raca: meressiten du condena dazan conciliuac. Baya dei laza=
nac fatuo: izanen da iburnico suaren meressidun. 23. Correngatic, zore oberta altarian presentatan
tzun tempran, can guartan bazra zore anassac diola zomait quessu zore contra: 24. Eitzazu
can berian zore oberta altariaren antcinian, eta fan zte leinic reconciliatra zore anassare=
quin: eta guero utzulen zra presentatra zore oberta. 25. Compoĩ zte bertan zore contrariuarequin,
zaudelaric bitartio orainore arequin vidian, ez deila izan izar dazaizula juezaren esquiuetan,
eta juezac entrega dazaizula nuciuarenetan: eta sar dazaicein carcelian. 26. Asequratan daiz
ciertoqui, ezrela cantic erquinen, azquen maravidia paca tzazun bitartio. 27. Entzun tcei erran
cela ssen mayorer: Etzu equinen adulterioric. 28. Nic erraiten daiceid obro: zoinnaidenec mira lezan e=
mazte bati deseo gasstorequin aren beira, erori cen adulteriotan bere biotzian. 29. Eta zore escoỹeco
bequia bada zoretaco ocasione bat becatuan erortaco, erquin zazu eta arroja zazu zutaric campo; bada obe da
zaizu galtia miembruetaric bat, ecic ez zore corpiz gucíua fan dein iburniara. 30. Eta zore escoỹeco esquiua
balinada escandalo emoiten daizuna edo incitatan becatuan erortra, ebaqui zazu eta egoch zazu zutaric urrin;

bada obe dazaizu gal dein zore miembruetaric bat, ecic ez fan dein iburniara zore corpiz gucina. 31. Er=
ran cen: Nornaidenec despedi lezan bere emaztia, emon dazaula beresstarzunaren cartilla. 32. Baya nic erraiten
daiceid: nornaidenec despedi lezan bere emaztia, ez izaitian adulteriuaren causaz, peligrotan izartan diola
adultera izaiteco; eta bordal cedina matrimoniotic emazte egochiric izan denarequin, adultero dela guisa berian.
33. Entzunic zaudei ere erran cela ssen mayorer: Etzu juramento falsuric equinen: leinaz obe cumpli=
ten dutzu juramento equinac Jeinari. 34. Nic erraiten daiceid obro, ñolare etzaceila juramento equin
motivo justoric bague: ez ceuriaz ere, ceren baita Jangueicuaren tronua: 35. Ez ere lurraz, da bada
bere zancopetaco asientua: ez Jerusalenez ere; ceren baita erregue andiaren ciudadia edo cortia:
36. Eztare etcei juramento equinen ssaurien buruaz, bada eztago ssaurien esquiuan equitia ssuri
edo belch bilo bacoch bat. 37. Izan deila bada ssen mintza moldia: bai, bai: edo ez, ez: ceren con=
taric igartan dena, izorro gasstotaric ssiten da. 38. Entzun tcei erran cela: Beguiz begui, ortcez
ortz. 39. Nic baya erraiten daiceid, etzaceila agraviuari equin erresistimentu: leinaz norbaitec
erachiquitan badaizu escoijeco masselan, utzul dazazu bercia ere: 40. Eta nai daizunari izari

pleitu guen dazaizun tunica, emon dazazu ere capa: 41. Eta eramanaraztan daizunari borcha carga=
truc milla urratsez, fan zte arequin berce bi millaz. 42. Escatan daizunari, emon dazazu: eta
ez dazazu uca beguitartia pretenditan dionari zutaric zomait prestamu. 43. Entzun cei erra=
nic izan cela: Amaten tzu zore projimua, eta (añaditu dicei gassqui) ecunen tzu odio zure
enemiguari. 44. Nic erraiten daiceid obro: Maita ditzacei ssen enemiguac: eguin zacei ongui aburri=
tan daiceiner, eta oracione eguin zacei sser perseguitan eta caluniatan daiceiner: 45. Izan ztein seme
ssen aita ceurian dagonaren imitazaliac: norc eguiten baitu sor dein bere iguzquia onen eta
gasstuen gainian: eta euri eguin tzan justo eta becatarien aurquian. 46. Ceren ez batcei ecuten amorio
beicic amatan daiceiner, ¿cer premiu ecun biar tcei? ¿ez deya cola eguiten publicanuec ere? 47. Eta ez bat=
cei salutatan berceri baicic ssaurien anasser, ¿cer ecustia du correc? ¿ez deya ote eguiten ere caur paganuec?
48. Izan ztei bada ssec perfecto, ssen aita celestiala den bicala perfecto, imitatan dauceitaric al tcein
gucina.

VI. Capitulua.

1. Guarda ztei onqui eguitiaz ssen obra onac guizonen antcinian, ecus dazaicein finarequin: berce guisazetcei
errecibiten ssen aita ceurietan dagonaren ganic bere premiua. 2. Eta cola emoiten tzunian limosna, etza-
zula nai publica trompeta sonuz, ipocritec eguiten dein bicala sinagoguetan, eta carriguetan edo plaztetan-
izan tian onratruc guizonen ganic. Eguiaz erraiten daiceid, errecibitu ceila ssa beren paguiua. 3. Baya
zuc limosna emoiten tciuanian, eguin zazu zore ezquerreco esquiuac etzan guart emon zore escoïac
eguiten diona: 4. Zore limosna bara dein alchatruc, eta zore aitac, ecustan baitu alchatrucago
dagona, recompensaten daizu publicuan. 5. Guisa berian errezatan tceinian, etcei izan biar
ipocriten guisa, ceinec propositoz izartan baidra oracione eguitra chutiric sinagoguetan eta car-
riquen esquinetan, izan tian ecusiric guizonen ganic: eguiaz erraiten daiceid errecibitu ceila ssa
beren paguiua. 6. Zuc, al reves, errezatu biar cinoquenian, sar zte ciauren aposentuan, eta borta cerratruc,
oracione eguin zazu secretuan zore aitari, eta zore aitac, ecusten baitu secretuan izanic ere, premia-
ten daizu publicuan. 7. Oracionian etzacei gogo ecun anich ssardoquitaco, gentilec eguiten dein
bicala: zoiner urdutan baizabei entzunic izan biar deila ele anichen indarrez. 8. Ez ditzacei

nai bada imita; ceren onqui baitaqui ssen aita cer biar tcein, lein ecic esca dazaucein. 9. Checei bada nola biar tcein errezatu: Aita goria, ceurietan zaudena: santificatuc izan deila zore icena. 10. Ssin deila zore reinua. Equin deila zore vorontatia, nola ceurian, cala ere lurrian. 11. Gore egu= norozco oguia emon dazaiguzu egun. 12. Eta parca daizquiguzu gore zorrac, guc parcatan digun bicala guri zor daicuner. 13. Eta ez guitzazu eitz tentacionian erortra. Baicic libra guitzazu gachetic. Amen. 14. Ceren parcatan batcei guizoner ofensac ssen contra equiten teinac: baitare ssen aitac ceurietan dagonac parcaten daicei ssaurien becatiuac. 15. Baya ssec ez batcei parcatan guizoner: eztare ssen aitac ez daicei parcaten becatiuac. 16. Barurtan tceinian, ecitei izar beltzuri ipocri= ten bicala: ceinec desfiguratan baitei beren bequitartia, emoiteco izaguntra guizoner barurtan deila. Equiaz erraiten daiceid, errecibitu ceila beren recompensa. 17. Zuc, berce guisaz, barurtan tciuanian, compoĩ zazu zore buriua, eta ecuz onqui zore bequitartia, 18. Et= cein guizonec izagun barurtan tciuala, baicic caũ solo zore aitac, presente baitago gaiza gucier, orainore alchatucago daudener; eta zore aitac, ecusten baitu igartan dena secretuan, emonen daizu correngatic recompensa.

19. Nai etzacei bil ontarzun ssentaco lurrian: non consumitan baidutu erroñac, eta polillac: non eta ladronec descubritan, eta ebastan baiditei. 20. Ssunta zacei leinaz bai ssentaco ontarzun ceurian: non ez baita erroña, ez eta polilla consumi dozgueinic; eztare ladron descubri, eta ebats dozgueinic. 21. Ceren zore tesorua dagon lequiuan, can diozu ere zore biotza. 22. Zore corpizaren arguia zore be=guiac dutzu. Zore beguia izan baledi sencillo, edo egon baledi ssaĩ: zore corpiz gucuia egonen tzu arguitruc. 23. Baya malicioso edo gassqui balimadacazu zore beguia: zore corpiz gucuia egonen tzu uluntruc. Ceren ulungua balimada zutan biar diona izan argui: ulungua berac ¿ cer andi iza=nen dra? 24. Norguere ez dogue cervucha bi nausiri: ceren edo ecunen du aburrimentu batari, eta amorio berciari: edo sujetatan bada leinari, miratan du ceñurequin bigarnari. Ez doguecei cer=vucha Janguoicuari eta ontarzuner. 25. Conen arrazoÿan erraiten daiceid, ecizteila acongoja cer ssan erdeiteco cuidaduaz mantenataco ssen vicia, edo nontic erguinen tcein veztido ssen corpi=zaren estaltaco. Cer ¿ ez dia viciac edo arimac obro valio ecic alimentuuac: eta corpizac obro ecic veztiduac? 26. Checei ceurico choriec, nola ez dein eriten, ez ere equitatan, ez graneroric

ere ecriten: eta nola mantenatan tion ssen aitac ceurian dagonac. ¿ Etceya bada ssec en beino anich obro valio comparacioneric bague? 27. Eta ¿ nor ssetaric anich discurrimenturen indarrez añadi doque codo bat bere luceguari? 28. Eta veztidua dela casoz ¿ cer propositoz ssen inquietatia? Checei alurreco liliac nola anditan dren eta loratan: ez decei ec lanuatan, ez urutan ere. 29. Calaric ere nic erraiten daiceid, ez Salomon ere bere andigua gucinaren erdian veztitu cela cai primorosoqui nola lili cuetaric bat. 30. Bada Jangueicuac cola veztitan badu egun alurrian loratan, eta biar labiara egochtan den belar bati: ¿ zomat obro sser, fede chiguitaco guizonac? 31. Cola bada eztei fan erranez acongojatruc: ¿ Non erdenen digu cer ssan eta edan? ¿ Non ceraguin vezti erdenen digu? 32. Equiten dein guisa paganuec, erabiltan baitra ansiarequin gaiza cuen gucinen atcian, bada onqui daqui ssen aitac etaz nestate tceina. 33. Azquenic, cherca zacei leinic Jangueicuaren reinua eta bere justicia: eta berce gaiza gucinua emonen dazquicei añadimentuz. 34. Eciztei bada erabil congojatruc biarco egunaz, ceren biarco egunac asqui cuidado eraguen du berarequin: asqui izan daquiola egun bapanari bere afan edo tarea propiua.

VII. Capitulua.

1. Nai etzacei juzga, nai ez batcei izan juzgatruc. 2. Ceren juzga cinecein juicio berarequin, biar tcei izan juzgatruc: eta neurri cineccin neurri berarequin, izanen zrei ssec neurtruc. 3. Baya zu ¿ cer bequitartequi izartan zra beiratra nata zore anassaren bequian: eta etzu guart emoiten biga dagonari ciaurnaren barnian? 4. Edo ¿ nola erraiten tzu zore anassari: Eitzazu nic erquin tzadan autzssco cori zore bequitic: eta gunian ciaurec tzularic biga bat ciauren bequian? 5. Ipocrita, erquin zazu leinic biga ciauren bequitic, ^ ecusen tzu nola biar tcian erquin nata zore anassaren bequitic.
6. Etzacei emon chacurrer gaiza saintiuac, ez ere egoch ssaurien perlac cherrier, ez deila izan chisca ditcein beren zancuez, eta vuelta ditian ssaurien contra eta zatizca ztein. 7. Esca ztei, eta emonen daicei: cherca zacei, eta erdenen tcei: bortan dei zacei, eta iriquiren daicei. 8. Ceren escatan den oroc, errecibitan du: eta chercatan dionac, erdeiten du: eta deitan dionari, iriquiren zau;
9. ¿ Badagua ote ssen artian norbait zoini, escatan zaularic ogui bere seme batec emon dazan arri bat,
10. ¿ Edo escatan bazau arrañ bat, emon dazan sugue bat? 11. Bada ssec, izaitian gaissto edo inclinacione

gasstotaco, balimadazuicei emon gaiza on ssaurien semer: ¿zomat obro ssen Aita celestialac emonen
du gaiza onac escatan dazquionari? 12. Eta cola equin zacei ssec berce guizonequin deseatan tcein
gucina ec equin tcein ssequin. Ceren caur baita Leguiac eta Profetec erran dein Uaburtina. 13. Sar
ztei borta ersitic: ceren borta eta vide zabalac dra eramaiten deinac perdicioniara, eta anich dra
sartan drenac vide contaric. 14. ¡O cer ersi da borta, eta cer mear senda eramaiten dionac acaba
ez deitequen viciara: eta cer tsigui dra arequin causitan deinec! 15. Guarda ztei profeta falsuetaz,
cein ssiten baitra ssen gana veztitruc ardi laruz, baya barnetic dra otso desorazale banac: 16.
Beren frutu edo obretaz izaguntén ditcei. ¿Biltan dreya ole mats arbole ñardunetaric, edo fi-
go ssargatcetaric? 17. Cola da nola arbole on oroc eragutan dion frutu onac: eta arbole gass-
to gucinac, frutu gasstuac. 18. Arbole on batec ez doque emon frutu gasstoric: eztare ar-
bole gassto batec, frutu onic. 19. Arbole oro, eragutan ez dionac frutu on, izanen da ebaguiric, eta
suara egochiric. 20. Beren frutinetaz bada izagun dozquecei. 21. Ez niri erraiten den oroc, ¡O
Geina, Geina! sarten da corren gatic ceurietaco reinuan: beicic equiten dionac ene Aita

ceurian dagonaren vorondatia, cori da sarten dena ceurien reinuan. 22. Anichec erranen daite
juicioco egun cartan: ¡ Geina, Geina! ¿ ez digua bada guc profetizatu zore icenian, eta egochi
zore icenian demoniuac, eta eguin anich milagro zore icenian? 23. Baya gunian nic erranen
dabeid: Seculaere ez daiceid izaguntu enetaco: aparta ztei nitaric, gasstotarzunaren obrazaliac.
24. Corren gatic, nornaidenec entzuten dion, eta cumplitan ene dotrina cuec, izanen da iduri
guizon cuerdo bati zoinec eguin baicion bere etsia arrizco cimentu gainian, 25. Eta erori
zren euriac, eta ugaltiac erguin zren marguinetaric, eta erabili zren airiac, eta emon cein
indarrequin calaco etsiaren contra, baya ecen izan desequinic: ceren baizagon equinic ar-
rizco cimentu gainian. 26. Baya nornaidenec entzuten dion, eta ez obraz izartan dotrina e-
moiten tuan cuec, izanen da iduri guizon ero fabricatu cion bati bere etsia āria gainian: 27.
Eta erori zren euriac, eta ssin zren ugaltetaco erriadac, eta butz eguin cein airec, eta emon cein
indarrequin etse caren contra, zoin erori cen, eta aren desequingua izan cen andi. 28. Azquenic,
acabatu ticoz Jesusec discurrimentu caur, entzuten zabein iriec ecein acabatan admiratiaz aren

dotrina. 29. Ceren er eracustaco moldia cen autoritate soberano batequin, eta ez beren Escri=
bai eta fariseuec ecacustan cein guisa.

VIII. Capitulua.

1. Ssachiz baicoz Jesus menditic, fan citzaun ssarrequituz guente multitud andi bat: 2. Contan,
eltian aren gana leproso bat, adoratan zaun, erraiten: Geina, zuc nai batzu, ssaĩ nindoquezu. 3.
Eta Jesusec zabaltan ciolaric esquiua, tocatu zaun, erraiten: Nai diez. Bara zte ssaĩ. Eta
instantian baratu cen sontotruc bere lepratic. 4. Eta Jesusec erran zaun: Chezu etzazula er=
ran ñorire: baya fan zte, presenta zte apezaren gana, eta ofreci zazu emontarzun Moisesec
manatu ciona, cervucha dazaun tesimoniotan. 5. Eta sartan celaric Cafaurnen erquin
citzaun encontriuara einturiaco oficiale bat, eta otoi equiten zaun, 6. Erraiten: Geina, ene
mitil cervuchari bat dago etcinic etsen perleticatruc, eta padecitan du anissco. 7. Errai=
ten du Jesusec: Ni fanen nuzu, eta sontoten dauz. 8. Eta replicatu cion einturiaco oficialiac:
Geina, ni enaz meressizale ori sar dein ene etsen: baya mana beza orren itzaz, eta baraten da

ene cervrizari mitila sontotruc. 9. Bada oraino ñaurec, ez bainaz beicic guizon bat izariric bercen meniara, nola baitud soldado ene ordeniuara, erraiten dud bati: Fán adi, eta ura faiten da; eta berciari: Onai, eta ssiten da; eta ene mitil cervuchariari: Equin zac caur, eta guiten du.
10. Caur entzutian Jesusec mostratu cion admiracione andi bat, eta erran cion ssarrequitan citzauner: Equiaz erraiten daiceid eztare Israelen erdian ere erden duala fede bat cain andi:
11. Cola nic declaratan daiceid, ssinen drela gentiletaric anich iguzquiaren erquingutic eta sargutic, eta egonen drela mayan Abraan, Isaac eta Jacobequin ceurietaco reinuan: 12. Reinoco semiac (Judiuac) izanen dren bitartio egochiric campo ulunguetra: can izanen da nessarra, eta ortcez garrasca equitia. 13. Gero erran cion Jesusec cinturiaco oficialari: Ortzu, eta agui daquizula ssinetsi tciuan bicala. Eta ordu cartan berian baratu cen sontotruc mitil cervucharia.
14. Fan izan celaric quero Jesus Pedroren etsera, ecusi cion conen amaguiarreba oyan, calenturarequin: 15. Eta tocatan zaularic esquiua, quentu citzaun calenturra: correquin ssagui cen bertan oitic, eta izari cen er cervuchatra. 16. Arrastria eltu izan baicoz, eragui citzabein anich espiritue=

quin zaudenic: eta bere eliarequin egochtan ztion espiritu gasstuac: eta sontotu ztion quessatan
zren guciuac: 17. Cumplitan celaric correquin erran ciona antcinetic profeta Isaiasec, erraiten:
Bera cargatu da gore eriqüetaz: eta artu du beraren gain gore eriquac. 18. Ecusten celaric Jesus
egun batez quente anichequin bere unguriuan, disponitu cion igartia Genezareteco laguaren berce
alteco erribrara. 19. Eta abañatan citzaularic Escribaĩ bat, erran zaun: Maistrua, ni ssarz
requiten naizu, norafnaiden fan citian. 20. Eta Jesusec errespondítu zaun: Assariec dei camia,
eta ceurico choriec abia: baya guizonaren Semiac ez du ceren gainian erreposa buriua. 21. Be
re discipuluetaric berce batec erran zaun: Geina, permeti naztazu lein ecic ssarrequi daizaizun
fan nein ñore aitaren õrztra. 22. Baya Jesusec errespondítu zaun: Ssarrequi naizte zu, eta eitzaz
ilec edo quente ez deinec fediaren vicia õr tcein beren illac. 23. Sartu cen bada barca ba
tian acompañatruc bere discipuluetaz. 24. Eta nonta azcatu cen ichasuan tempestade bat cain
andi, estaltan baicein oladec barca, baya Jesus zagon lo equiten. 25. Eta abañatan zrelaric aren
gana bere discipuluac, igatzarri zabein, erraiten: Gina,) salva guitzazu, galtruc baigra. 26.

Erraiten dabei Jesusec: ¿ Certaz lotsatan zrei, o fede guichitaco guizonac? Gunian chuti izariric,
manatu cion airer eta ichasuari aplaca litiala, eta sequitu cen sosegu andi bat. 27. Zointaz a=
turditruc can zauden guciuac, erraiten cen alcar: ¿ Nor da caur, zoini airec eta ichasuac obedi=
citan baitabei? 28. Barcotic erquiniz queroz laguaren berce erribran gerasenuen errian, fan
zren ssussen aren gana, erquitian sepultura zaudenetaric, bi endemoniatu cain furioso ezbai=
cen ñorere atrevitan igartra vide cartaric. 29. Eta bertan asi zren irago equiten, erranez: ¿ Cer
ecustéco digu guc zorequin, o Jesus Jangueicuaren Semia! ¿ Ssin zreya cona guri atormenta=
tia gatic tempra bague? 30. Zagon ez urrin cantic cherri saldo andi bat alatan. 31. Eta de=
moniuec otoi equiten zabein guisa contan: Egochtan bagutzu quementic, oil guizazu cherri
saldo cortra. 32. Eta arc erran zabein: Ortcei. Eta urac erquin zrelaric sartu zren cherrietan; eta
nonta saldo guciuac laster equin cion furia andirequin zauci equitra turrumpero bataric Genezaretéco icha=
suara: eta baratu zren itotruc uretan. 33. Cherrizañac inesitu zren: eta eltu baicoz ciudadiara,
contatu cein aquitan cen guciua, eta particularqui aquitiua endemoniatuequin. 34. Puntu

berian ciudade gucina erquin cen Jesusen cherca: eta ecustian, otoi equin zabein erretira ledin beren erritic.

## IX. Capitulua.

1. Eta barcuara igaitian, igari cen lagunaren berce altiara, eta ssin cen bere egoitiazco ciudadiara edo Cafarnaunera. 2. Noizta presentatu zabein perleticatu bat etcinic oi batian. Eta ecustian Jesusec bere fedia, erran zaun tullituari: Ecun zazu confianza ene semia, ceren parcatruc zaitzu zore becatuac. 3. Zoini Escribañ banec erran cein bertan berentaco: Conec blasfemiatan du. 4. Baya Jesusec ecustian beren pensamentuac, erran cion: ¿Ceren pensatan tcei gassqui ssaurien biotcetan? 5. ¿Cer gaiza da facilago, erraitia: Ciauren becatuac parcatan zaitzu: edo erraitia: Ssaqui eta erabil zte? 6. Bada ssaquin zacein guizonaren Semiac diola lurrian potestade becatu parcataco, azca zte: erran cion tempra berian perleticatuari: ar zazu ciauren oya, eta fan zte zore etsera. 7. Eta ssaqui cen, eta fan bere etsera. 8. Zoin ecustian quentec baratu zren lotsa saintuz beteric, eta emon cein gloria Jangueicuari, emon ciolacoz colaco potestade

quizoner. 9. Partitu celaric quementic Jesus, ecusi cion guizon bat ssaseriric alcabalen banco edo
mai batian, icenez cionac Mateo. Eta erran zaun: Ssarrequi naztazu. Eta ura ssaguitan celaric
bertan, sequitu citzaun. 10. Eta aguitu cen zagolaric Jesus Mateoren etseco mayan, ssin zrela
anich publicano eta vici gasstotaco guente, izari baizren mayan bazcalta arequin, eta bere
discipuluequin. 11. Eta ari ecustian fariseuec, erraiten cein bere discipuluer: ¿Nola da ssen Mais-
truac ssaten baitu publicano eta becatariequin? 12. Baya Jesusec caur entzutian, erran
zabein: Ez dutzu sanuac, beicic eri daudenac dotoriaz nestate deinac. 13. Jan ztei bada
icastra cer sinificatan dion: Obro estimatan dud misericordia, ecic sacrificiua. Ceren becata-
riac baitra, eta ez justoac, zoiner ni ssin bainaz deitra penitencia equitra. 14. Gunian
presentatu zren Jesusen gana Juanen discipuluac, eta erran zabein: ¿Zoin da motivua ce-
ren, quc eta fariseuec barurtan digunian naroqui, ez baitei barurtan zore discipuluec? 15.
Errespondituz zabein Jesusec: ¿Esposuaren adessguidiac erabil deiteguia ote nessargarri espo-
sua equin dagon bitartio? Elten da bai tempra zointan izanen baizabei guentruc esposua:

eta gunian barurten dein. 16. Ñorquere ez du egosstan tapallu bat ossal lodiz veztido ssar bati:
berce guissaz berriguac urratan du ssardunaren parte eta andiago eguiten da urratina. 17. Ez-
tare ez dei egosstan ardaũ berria zagui ssarretan: ceren caur eguiten bada lertan da zaguia,
eta usurtan da ardaũa, eta galtan dra zaguiac. Baya ardaũ berria egosstan dei zagui berrie-
tan eta cola conservatan da bata eta bercia. 18. Conversacione contan zagon, eltu cenian guizon
principale edo sinagogaco nausi bat, eta adoratan zaularic, erran zaun: Jina, ene alaba acabatan
da iltiaz: baya ssin zte, izar zazu zore esquina aren gainian, eta viciren tzu. 19. Ssaguitian
Jesus, faiten citzaun ssarreguituz bere discipuluequin, 20. Noizta emazte bat, baicion amabi
urte padecitan ciola odol usurtina bat, ssin cen atciritic, eta tocatu cion aren veztiduaren atccua.
21. Ceren arec erraiten cion berartan: Toca al doquedan ber aren veztidua, ecusenaz sontotruc. 22.
Baya vueltatian Jesus, eta mira eguiten zaularic, erran zaun: Alaba ecun zazu confianza, zo-
re fediac sontotu daizu. Eguiaz, instante cartaz queroztic baratu cen sontotruc emaztia. 23. Ssin
celaric Jesus guizon principale caren etsiara, eta ecustian flauta edo lutozco musica sonazaliac

eta guentiaren arroitina, erraiten cion: 24. Retira ztei: ez dago bada ilic ~~aurra~~ nesscassia, beicic loa
cartruc. Eta artaz burla equiten cein. 25. Baya egochiric campo guentia, sartu cen, escutic
artu zaun, eta nesscassia azcatu cen. 26. Eta afamatu cen aquitina erri cartaz gucinaz. 27.
Partitiari Jesus lecu cartaric, sequitu cizazcan bi utsi, irago equiten, eta erraiten: Daviden
semia, ecun zazu compasione gutaz. 28. Etsera eltu cen baicoz, presentatu citzazcan utz
siac. Eta Jesusec erran zabein: ¿ Ssinestan tceya nic equin doquedala escatan tcein
cori? Erraiten dabei: Baigina. 29. Gunian tocatu zazcabein bequiac, erraiten: Nola ssen
fedia cola equinic izan daquiceila. 30. Eta iriquiric izan citzabein bequiac: baya Jesuz
sec amenazatu ztion, erraiten: Checei ñorquere etzala ssaquin. 31. Ec calaric ere canticerz
quitian, publicatu cein unguru guzutic. 32. Cuec erquinic, presentatu zabein mutu bat,
endemoniatruc. 33. Eta egochiric queroz demonina, ele erran cion mutina, eta quenz
tiac bete zren admiracionez, eta erraiten cein: Secula ez da ecusi izan calaco gaiza Israelen.
34. Fariseuec al reves erraiten cein: Demoniuen principalaren artez egosstan ztu demoninac. 35. Eta

Jesus faiten cen lastercatan ciudade eta iri gucinac, eracusten beren sinagoguetan, eta predicatan
Jangueicuaren reinuaren evangelina, eta sontotan doloretarzun, eta erigua oro. 36. Eta ecus=
tian guente curac, compadecitan cen etaz, ceren baizauden gassqui paratruc, eta barriatruc
quemen eta can ardiac artzaĩ baque bicala. 37. Zointaz gainian erran cion bere discipuluer.
Da equiazqui anich equitataco; baya equitariac chiqui. 38. Otoizca ztei bada equitaraco nau=
siari, oil tzala equitari bere alurriara.

## X. Capitulua.

1. Contaz guero, deitu ztiolaric bere amabi discipuluac, emon zabein potestade egossteco
espiritu chiquinac, eta sontotaco cernaiden guisataco min, eta eriguac. 2. Amabi Apostolen
icenac dra cuec. Leina Simon, icengainez Pedro, eta Andres bere anassa, 3. Santiago Zebe=
deoren seme, eta Juan bere anassa, Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo publicanua, San=
tiago Alfeoren seme, eta Tadeo, 4. Simon cananeua, eta Judas Iscariote, saltu citzaun bera.
5. Amabi cuec oiltu ztion Jesusec, emoiten zabeilaric seguitan dren icastiac: Eciztei

fan orai gentilen lurriara, eztare eciztei sar samaritanuen irietan: 6. Baya fan ztei
lein cherca Israeleco etseco ardi galtinac. 7. Fan eta predica zacei, erraiten: Abañatan
dela ceurietaco reinua. 8. Eta, izaguntra emoiteco ssen dotrina, sonto zacei eriac, resucita
zacei ilac, ssain zacei leprosuac, egoch zacei demoniuac: emon zacei graciaz graciaz
errecibitu tceina. 9. Etzacei eraman urreric, ez cidarric, eta ez deus deuriric ssaurien bolsetan:
10. Ez alforjaric viajeco, ez obro ecic tunica bat eta calcero eli bat, eztare maquila edo berce
armaric ssaurien defensataco: ceren trabajatan dionac meressi du mantena dazabein. 11.
11. Zointan naiden ciudade edo aldeatan sar cindein, informa ztei nor den artan guizon
prestu edo dino erreci dazaicein ostatuz: eta egon ztei bere etsen ssen faitiarajno. 12. Etsian
sartiari, salutacionia bear du izan: Baquia izan deila etse contan. 13. Ceren etsiac meressitan
badu, ssinen da ssen baquia aren gana: baya ez balimadu meressitan, ssen baquia utzulen
da ssauriequin. 14. Nai ez daicenian errecibitu, ez ere beatu ssen eliac, erguiten zreilaric
colaco etse edo ciudadetic, idarraus zacei ssaurien zancuetaco errautsa. 15. Eguiaz erraiten daiceit

Sodoma eta Gomorra izanen drela tratatruc rigore chiquiagorequin, juicioco egunian, ecic-
calaco ciudadia. 16. Bea ztei nic oittan daiceila ardi bicala otsuen artian. Corren gatic izan biar
tcei prudente suguien guisa, eta sencillo urssuen bicala. 17. Baya recaturequin vici ztei co-
laco guizonequin. Bada acusaten ztei tribunaletan, eta azotaten ztei bere sinagoguetan: 18.
Eta ene causaz izanen zrei eramanic gobernazalien eta erreguen antciriara, testimonio
emoiteco nitaz er, eta nacioner. 19. Comparecituaraz cintceinian ere, ez daizaiceila emon
cuidadoric nola edo cer erran biar tcein: ceren emonic izanen baizaicei ordu cartan berian
erran biar tceina: 20. Yaqueta ez bairtei ssec aipatan diona gunian, beicic ssen Aitaren
Espiritiua, zoin mintzatan baita ssen gatic. 21. Gunian anasse batec entregaten du bere
anassa muertiara, eta aitac semiari: eta semiac azcaten dra aiten contra, eta ilara-
cen tei: 22. Eta ssec ssinen zrei izaitra uguntruc guciuen ganic ene icenaren causaz:
baya perseveratan dena azquen ordiuarartio, caur salvaten da. 23. Gunian bitartio, perse-
guitan daiceinian ciudade batian, ezcapa ztei berciara. Equiaz erraiten daiceid, etceila

acabaten convertitiaz Israeleco ciudadiac, lein ecic ssin dein guizonaren Semia. 24. Ez
da discipulua obro ecic bere maistrua, ez ere cervucharia obrotaco ecic bere nausia: 25.
Asqui daquiola discipuluari, izaitia tratatruc bere maistruaren guisa; eta cervuchariari,
bere nausiaren bicala. Etseco aitari deitu balimadei icenez Beelzebub: ¿ zomat obro
bere menorer? 26. Baya corren gatic ez dazaucei ecun lotsa. Ceren deusere ez baitago
estaltruc, aguertruc ez biar dionic izan: ez ere alchatruc, ssaguinic izan ez biar dionic.
27. Erraiten daiceidana gayaz, erran zacei egunaren arguiara: eta erraiten daiceidana bi=
arriara, predica zacei lurrezco sabayetaric. 28. Deus lotsaric etzacei ecun corpizaren
ilzaler, eta arima il ez doqueiner: leinaz onqui lotsa ecun zacei egoch doquenari ari=
ma eta corpiza iburniara. 29. ¿ Ez dia cola ~~cola~~ bi chori saltan drela bi maraviditan:
eta calaric ere etaric bacocha ez dela eroren lurriara disponitan eztion bitartio ssen
aitac? 30. Ssaurien buruco biluac ere daude guciuac contatruc. 31. Etcei bada certaz
lotsa ecun: valio tcei ssec chori anichec beino obro. 32. En suma: reconoci eta confesatan nei
=

ner oro Mesiastaco guizonen antcinian, nic ere izagunten daud eta declaraten naz aren alte ene
Aita, ceurietan dagonaren antcinian: 33. Baya ucatanindionari guizonen antcinian, nic ere
ucaten daud ene Aita, ceurietan dagonaren antcinian. 34. Etcei cer pensa ni ssin nintzala
baquiaren eragutra lurriara: ez naz ssin baquiaren eragutra, beicic guerra; 35. Bada ssin naz
beresstra semia bere aitaren ganic, eta alaba bere amaren ganic, eta errena bere amaguiar
reba ganic: 36. Eta guizonaren enemiguac izanen dra bere etse berbereco personac. 37.
Amatan dionac aitari edo amari niri beino obro, ez du meressi izan enia; eta ama
tan dionac semiari edo alabari niri beino obro, eztare ez du meressi izan enia.
38. Eta ez dena cargatan bere cruchiarequi eta niri ssarrequitan, ez da dino nitaz.
39. Bere arimaren costuz conservatan dionac bere vicia, galten du: eta galezanac bere
vicia ene amorioz, vuelltaten da erdeitra. 40. Sser errecibitan dionac, niri errecibitan du; eta
niri errecibitan dionac, errecibitan du niri oiltu nindion berari. 41. Errecibitan dionac
ostatuz profeta bati profeta delaco atencionez, errecibiten du profetaren premiua;

eta ostatuz artan dionac justo bati justo delacoz, ecunen du justuaren saria. 42. Eta nor-
naidenec emon lezan edatra chiquerssco cuetaric bati ez beicic vaso bat ur otz ene discipulo
delacoz arrazoĩjan, emoiten daiceid ñore itza, ez diola galten bere paquina.

## XI. Capitulua.

1. Nola Jesusec acabatu baicion emoitiaz eracustia cuec bere amabi discipuluer, partitu
cen cantic eracuts eta predicataco beren ciudadetan. 2. Baya Juanec entzun nola baicion
prisionian Cristoren obra maravillosuac, oiltu cion bere discipuluetaric bi ari galteguitra:
3. ¿ Zu zreya Mesias ssin biar diona, edo berce bat esperatu biar digu? 4. Zoini Jesusec
errespondita zabein: Fan eta conta zacei Juani entzun tceina, eta ecusi tceina. 5.
Utsiec ecusten dei, mainquiuac erabiltan dra, lepradunac baratan dra ssai, sordunec
entzuten dei, ilac erresucitatan dra, evangeliua emoiten da pobrer: 6. Eta bienaven-
ratu arten ez dionac ene ganic escandalozco ocasioneric. 7. Cuec fan baicoz, asi cen Jesus
mintzatan Juantaz, eta erran cion iriari: ¿ Cer ecustra erquin zrei desiertuan! ¿ caña aire

gucietra mositan zomait? 8. Berzala erran daztaceid, ¿ cer ecustra erguin cintcein? ¿ guizon
bati veztitruc arropa delicatu banequin? Badaquicei cola veztitan drenac, daudela erreguen pa=
lacietan. 9. Azquenian, ¿ cer erguin zrei ecustra? ¿ zomait profeta? Cori bai, nic aseguratan
daiceid, eta orainore anich obro ecic profeta. 10. Bada ura da nortaz escribitruc baitago: Mira
zazu nic oittan duala ene aingurirua zore presenciaren antciniara; zoin ȷanen baitra
zure antcinetic disponitan daizularic vidia. 11. Eguiaz erraiten daiceid, emazten se=
men artian ez dela sortu bacochic Juan Bautista beino andiago: aren beino andiago
izanic ere, chiquerrago dena ceurien reinuan. 12. Eta Juan Bautistaren tempratic
presentiaraino, ceurien reinua alcanzatan da indar viciz, eta indar vici caur egui=
ten deinac bapanac berarequin, dra arrapatan deinac. 13. Ceren profeta guciuec, eta leguiac
Juantrā drāino, erran cein antcinetic guero aguitu biar ciona: 14. Eta entelegatu nai baitcei,
ura bera da Elias ssin biar cion cura. 15. Biarri dionac entelegataco, entelega tzala. 16. Ba=
ya ¿ nori comparaten dud nic guizaqui casta caur? Da asemejatruc morroī plaz=

ssaseriric daudener, ceinec irago equitiari beren lagunetaric berce zomaiti 17. Erraiten da
bei: Cantatu daigucei canchoĩ alegre, eta ezrei lantzatu: canchoĩ triste, eta etcei nessar
equin. 18. Cala da ssin baicen Juan cuasic ez baitu ssaten, ez ere edaten, eta erraiten dei:
Poseitruc dago demoniuataz. 19. Ssin da guizonaren Semia ssaten, eta edaten baitu, eta
erraiten dei: Ona quemen goloso bat, eta avinatu bat, publicanuen, eta vici gaisstotaco
guenten adessquide. Baya sabiduria divinua baratan da justificatruc bere sementaco.
20. Gunian asi cen reconvenitan ciudadier zoinetan equin baizren milagruetaric a
nich, ceren ez baiccin equin penitencia. 21. ¡Ai zutaz Corozain! ¡ai zutaz Betsaida!
ceren Tiron eta Sidonen equin balidra milagro ssetan equin drenac, aspaldian equinic
ecunen ceila penitencia, estaltruc autsez eta ciliciox. 22. Corren gatic erraiten daiceit,
Tiro eta Sidon izanen drela tratatruc juicioco egunian rigore chiguiagorequin ecic ssec,
23. Eta zu Cafarnaun ¿nasquiro pensatan tzu biar tciuala igan ceuriarartio? izanen
zra, bai, abatitruc iburniarano: ceren, Sodoman equin balidra milagro zutan equin drenac,

Sodoma eltubada iraũ zaitequian orainore egunco egunian. 24. Corren gatic erraiten daizud;
Sodomaco erria juicioco egunian izanen dela gaztigatruc zu beino rigore chiquiagorequin;
25. Calaco tempran clamatu cion Jesusec erraiten: Nic glorificatan daizud, ene
Aita, ceuri eta lurreco Jeina, ceren ecun baidutzu alchatruc gaiza cuec sigloco sabiuer
eta prudenter, eta revelatu baidutzu chiquercuer. 26. Bai, ene Aita, alabatruc izan ztiala:
izan delacoz zore agradoz cola izan ledin. 27. Gaiza gucinac izari dutu ene Aitac ñore esquiu-
etan. Baya ñorquere ez du izagunten Semia, beicic Aitac: eta ñorquere ez du izagunten Aita,
beicic Semiac, eta carc zoini Semiac nai ecuntu al dion revelatu. 28. Ssin ztei ene ganaz
erabiltan zrein gucinac agobiatruc trabaju, eta carquequin, ceren nic aliviaten baizteid.
29. Ar zacei ene carga ssaurien ganian, eta icas zacei ene ganic, mansu, eta umilde nazala bi-
otcez: eta erdenen tcei erreposina ssaurien arimentaco. 30. Ceren suave baita ene carga, eta
arin ene pecina.

## XII. Capitulua.

1. Tempra contan berian, igartan celaric Jesus nescanegun batez ator erin altaca banetaric, be=
re discipuluac ceḷaric gose asi zren buruca biltan, eta granuen ssaten. 2. Eta caur ecustian
fariseuec, erran zabein: Beira zazu zore discipuluec eguiten deila ez dena licito eguitia nes=
canegunian. 3. Baya arec errespondit zabein: ¿ Etceya leitu Davidec eguin ciona, bera eta
laguntan zabeinac ecusi zrenian gosiaz obligatruc, 4. ¿ Nola sartu cen Jangueicuaren
etsean, eta ssan cion proposicionezco oguiac, licito eẓcena ssatia ez ari eztare aren laguner,
beici cain solo sacerdoter? 5. ¿ Edo etcei leitu leguian, nola sacerdotec trabajatan dein eli=
zan nescanegunian, eta caḷaric ere ez becaturic eguiten? 6. Bada nic erraiten daiceid, gue=
men dagola eliza beino andiago baita. 7. Ceren ssec ongui bacinecei ssaquin cer nai dion
erran: Nayago dud misericordia, bino sacrificiua: secula ecinein condenaten inocenter. 8.
Ceren guizonaren Semia dueño baita nescanegunaz ere. 9. Partitu zrelaric cantic, sartu
cen en sinagogan; 10. Zointan cegon guizon bat baizacan escu bat essartruc; eta galtequin
zabein Jesuṣi, erdeiteco motivo ari acusataco, ¿ Licito cenez sontotia nescanegunian? 11. Baya arc

erran zabein: ¿Cer guizon izanen da ssen artian, zoinec ecutian ardi bat, eta erortan bada
caur cilo batian nescanegunian, etzan azca eta erquin campo? 12. ¿ Bada zomat obro valió
du guizon batec ecic ardi batec? Cola bada licito onqui eguitia nescanegunian. 13. Gunian
erran zaun guizonari: Luzazu escu cori. Estiratu cion, eta baratu cen cain sano nola
bercia. 14. Baya farisenac erguitian, ssuntatu zren maquinataco aren contra, eta galaraztaco.
15. Baya Jesus izaguntian caur erretiratu cen: eta eri anich ssarrequitu cizazcaun, eta er-
oro sonto tuztion: 16. Encargatan zabeilaric fuertequi ez lezabeila descubri. 17. Conequin
cumplitu cen Isaiasen profecia, zoinec erraiten baitu: 18. Checei cor ene cervucharia, zoi-
ni nic baitacad escogitruc, ene maitia, zointan ene arima complaceitu baita osoqui. Iza-
ren dud aren gain ene espiritua, eta anunciaten du justicia nacioner. 19. Ez da porfia-
ten ñorequin ere, ez du iragoric equinen, ez ñorquere ez du entzunen aren mintzua
edo irago equitia plaztetan: 20. Ez du zaticaten caña autseric dagona, eztare acabaten illiaz-
argui oraino queitan dagona, triunfaraztan dion bitartio beraren causaren justicia. 21.

Eta bere icenian izaren dei nacionec beren esperanza. 22. Izan zaun tempra berian eraguric
endemoniatu bat, utsi, eta mutu, eta sontotu cion calaco quisan ari baicen gunian bertan
ele erraiten, eta ecusten. 23. Zoinequin iri gucina baratu cen arritruc, eta erraiten cion: ¿
Caur dia ote Daviden Semia Mesiasa? 24. Baya fariseuec caur entzutian, erraiten cein:
Conec eztu egoisstan demoniuac baicic Beelzebuben obraz, zoin baita demoniuen prin=
cipala. 25. Gunian Jesusec izaguntan ciolaric en pensamentiuac, erran zabein: Reino be=
ressiric dauden oro partido contrariotan, izanen dra desolatruc, eta zoin naiden ciu=
dade, edo etse beressiric pensa moldetan, ez du irainen. 26. Eta satanasec egoisstan badu
campo satanasi, da berarequin contrario: ¿ nola bada biar du irain bere reinua? 27. Ceren nic
egoisstan batud demoniuac Beelzebuben icenian, ssen semec ¿ cer icentan egoisstan tei?
Corren gatic coriec berac izanen dra ssen juezac. 28. Ceren nic egoisstan batud demoniuac
Janqueicuaren espirituaren virtutez, sequitan da ciertoqui Janqueicuaren reinua edo
Mesiasa eltu dela ssen gana. 29. Berzala, erran daztaceid: ¿ nola da norbait sar dein guizon

valore anditaco etsian, eta ebats dazan bere ontarzunac, ez badu leinic onqui lotan valientiarr?
gunian al ecunen dau etsia saquia. 30. Ez dagona ene favore, dago ene contra; eta ez dionac
enequin biltan, barriatan du. 31. Corren gatic declaratan daiceit: Cernaiden becatu eta
cernaiden blasfemia parcaten zabeila guizoner, baya blasfemia Jangueicuaren espirituaren
contra ez dela parcatren caĩ facilqui. 32. Guisa berian nornaideni mintza ledinari
guizonaren Semiaren contra, parcatren zau; baya mintza ledinari Espiritu Saintuaren contra,
despreciatan aren gracia, ez dazau parcaten ez vici contan, eta ez bercian. 33. Edo bada erz
ran zacei arbolia dela on, eta on aren frutiua: edo arbolia balimadacei gaisstotaco, ez
cun zacei ere gaisstotaco aren frutiua: yaqueta frutiuaz izaguntan baita arboliaren
calidadia. 34. ¡O viborazco casta! ¿nola da posible ssec aipa zacein gaiza onic, izaitan,
zrein guisa, gaissto? yaqueta mintzatan baita aua biotzaren abundatarzunetic. 35. Guizon
prestuac erquiten tu gaiza onac bere biotzaren ondo onetic: eta guizon gasstuac bere ondo gassz
totic erquiten tu gaiza gasstuac. 36. Nic erraiten daiceit, orainore ele aurez, cernaiden erran

leceinetaz guizonec, biar deila emon contu juicioco egunian. 37. Ceren zore elen gatic ecunen izan justificatruc, eta zore elen gatic condenatruc. 38. Gunian Escribaũ eta fariseuetaric zomait mintzatu citzazcabein, erraiten: Maistrua, ecun nai guinoquezu eguin cinezan zomait mi-ra-lagro. 39. Baya arec errespondituzabein: Raza gaissto eta corrompitu conec escatan da prodigio bat; baya ezau emonen escatan dena, baicic Jonas profetaren prodigiua. 40. Ceren Jonas egon cen bicala ballenaren entrañan irur egun, eta irur gai; cola guizonaren Semia egonen da irur egun, eta irur gai lurriaren entrañan. 41. Niniveco naturalac azcaten dra juicioco egunian guizaqui casta conen contra, eta condenaten dabei: ceren ec eguin baicein penitencia entzutian Jonasen predicacionia. Eta conen guciarequi, quemen dagona da Jonasen beino obro. 42. Egüerdi atteco Erreina equinen da acusazalia juicioco egunian guizontarzun casta conen contra, eta condenaten dau: cerengatic ssin baicen lurraren bazterretaric entzuteco Salomonen sabiduria, eta conen guciuaz, quemen tcei Salomon beino obrotaco dena. 43. Erquin denian espiritu ciquina zomait guizontaric, erabiltan da can quemenca lecu idorretazo

cheratan non equin asiento, consequitan baquetaric. 44. Gunian erraiten du: Vueltaten naz-
ñore etse erquiñazaniara. Eta vueltatian artra erdeiten du desocupatruc, onqui e-
gortruc, eta alajatruc. 45. Conequin faiten da, eta artan du berarequin berce zazpi
espiritu beraren beino gaisstuago, eta sartian can equiten dei mansione: zoinequin gui-
zon caren azquen izan moldia ssiten da izaitra lastimosuago ecic leina. Cola aquitu-
biar du guente casta cañ perverso coni. 46. Orainore zagon ura platicatan iriari, non-
ta zauden campo bere ama eta bere anassac, nai zabeilaric ele erran. 47. Zoinen gatic batec erran-
zaun: Chezu, zore ama eta zore anassac daudezu cor campo zutaz galtequiten. 48. Baya arc
erresponditian erraiten zaunari, replicatu zaun: ¿ Nor da ene ama, eta zoin dra ene a-
nassac? 49. Eta señalatan ztiolaric esquiuaz bere discipuluac: Cuec, erran cion, dra ene
ama, eta ene anassac. 50. Ceren nornaidenec equin lezan ene ceurian dagon Aitaren voron-
tatia, caur da ene anassa, eta ene arreba, eta ene ama.

XIII. Capitulua.